





04/3

GURE PLANTILLA

Uvesco Taldearen helburua «Gure ingurunearen ongizatea elikatzea» da, eta helburua, taldeari dagokionez, profesional talde kohesionatu eta motibatu bat edukitzea da.


Uvesco Taldearen helburua «Gure ingurunearen ongizatea elikatzea» da, eta helburua, taldeari dagokionez, profesional talde kohesionatu eta motibatu bat edukitzea da. Horretarako, ahalegin sistematikoak egiten ditugu,

erakundeko ongizate mailak handitzeko, bere adiera guztietan -ongizate fisikoa, mentala, erlazionala eta ekonomikoa-.

Lanpostuen egonkortasuna

7.432 pertsonako plantilla dugu (2025eko ekitaldiaren amaieran), eta kalitatezko enplegua eskaintzeko konpromisoa dugu, egonkortasuna sustatu, talentua aitortu, lan harremanak

hobetu eta plantillarentzat ongizate inguruneak garatzea bilatzen duten politiken bitartez.





Genero berdintasuna

Aukera-berdintasuna eta talentua, generoa edozein dela ere, garapen profesionaleko prozesu guztietan daude. Uvescoko barne-sustapeneko programei esker, aldaketa positiboa bultzatu da emakumeen ordezkartzan. Azken 10 urteetan,

ardura-postuetan dauden emakumeen kopurua % 20 igo da.

Emaitzek konpromisoa bermatzen dute:

01

Langileen % 67 emakumeak dira.

02

Emakumeek betetzen dituzten erantzukizuneko karguen % 70 (zuzendariak, gerenteak, arloko arduradunak, dendako arduradunak eta arduradunaren laguntzaileak), eta dendako roletan % 72ra iristen da.

03

2025. urtearen amaieran, arduradunen laguntzaileen % 79 emakumeak ziren, eta horrek etorkizuneko ikuspegia indartzen du, lidergo roletan duten presentzia areagotzeko.



% 70

ERANTZUKIZUNEKO POSTUETAN
ARI DIREN EMAKUMEAK

% 79

EMAKUMEAK ARDURADUN
LAGUNTZAILEEN LANPOSTUETAN

Berdintasun Planak

Langileen % 88 Berdintasun Planetan sartuta dago, indarrean dagoen araudiaren arabera garatuta eta enpresa bakoitzeko LLOekin negoziatuta.

2025ean, Hiber enpresaren Berdintasun Plana negoziatu da; enpresa hori 2024an sartu zen

taldean. Plana erregistratu ondoren, berdintasun planetan sartutako pertsonen portzentajea % 99ra igoko da.

Hauek dira berdintasun-planen ardatz nagusiak:

01

**Langileen % 100
sentsibilizatzea
genero-berdintasunaren
eta sexu-jazarpenaren
edo sexuan oinarritutako
jazarpenaren
prebentzioaren inguruan.**

02

**Protokoloak ezartzea
sexu-jazarpena
prebenitzeko eta horri
aurre egiteko.**

03

**Genero-indarkeriaren
aurrean jarduteko
protokolo bat garatzea,
informazioko, laneko,
ekonomiako eta
prestakuntzako
neurriekin, biktima diren
emakumeak lan-eremuan
babesteko eta laguntzeko.**



Aniztasuna eta desgaitasuna

Uvesco Taldean, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa sustatzen dugu, enpatia, ulermen eta laguntza inguruneak sustatuz. Gure helburua oztopoak kentzea eta aukera berdintasuna bermatzea da.

2025ean, hainbat erakunderen eskutik egin dugu lan, hala nola Gureak Gipuzkoan, Bizkaiko Down Sindromearen Fundazioa eta Prodis Madrilen, haien erabiltzaileak prestatzen eta sartzen. Gainera, sentsibilizazio-ekintzak egin

ditugu gure profesionalentzat, trebakuntza, hitzaldi eta albisteen bidez.

2025ean, Uvesco taldean desgaitasunen bat duten 77 langilek egiten dute lan.

Segurtasuna, osasuna eta ongizatea

Laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko plan orokorra (LAP)

Plantillaren segurtasuna eta osasuna lehentasuna da Taldearentzat. Prebentzioa kudeatzeko sistema bat dugu, prebentzio-arloko politika, helburuak eta jomugak aplikatzean oinarritua, eta erakunde osoa hartzen du barnean.

Funtsezko betekizunak, baliabideak eta tresnak laneko arriskuen prebentzioa kudeatzeko plan

orokor batean (LAP) definituta daude.

Indarrean dauden araudi berrietara egokitzen diren prebentzio-plan orokorrak daude enpresen % 100entzat. Langileen % 100ek arriskuen prebentzioaren arloan lan egiten du.

Supermerkatuetan, prebentzio-zerbitzu mankomunatua (SPM) dugu, segurtasunaren, higienaren, ergonomiaren eta psikosoziologiaren arloetan zerbitzua ematen duena.

Gainera, supermerkatu eta zentraletan kanpoko prebentzio-zerbitzuak (SPA) izaten jarraitzen dugu, osasunaren zaintzarako, segurtasun eta higienarako, azterketa teknikoetarako, ergonomiaren sustapenerako, prozesu berrien garapenerako, autobabeserako planetarako, azterketa psikosozialetarako, trebakuntzarako eta abarretarako, lan-istripuak eta gaixotasun profesionalak minimizatzeke.

Bestalde, mutualitateak ditugu lan-istripua izan duten langileei laguntzeko, bajarekin eta bajarik gabe, baita gaixotasun profesionaletarako ere.

Prebentzioa antolatzeke ereduaren osagarri gisa, eta prebentzio-jarduera enpresan eta ekoizpen-prozesuetan integratzen laguntzeko, laneko segurtasun eta osasuneko koordinatzaile bat definitu da.

Norbera babesteko ekipamenduak (NBEak)

Langile guztiek jasotzen dute laneko segurtasuna eta osasuna bermatzeko behar duten materiala. 2025. urtean 570.757€

inbertitu dira NBEak eta LAP materiala erosteko.

Taldearen osasunari eta ongizateari lotutako ekimenak

2025ean, Uvesco Taldeko lan-arriskuak prebenitzeko taldeak kudeatzen dituen profesionalen zaintzarekin, osasunaren

zaintzarekin eta ongizatearekin lotutako jarduera eta zerbitzu batzuk nabarmendu dira:

01

Online osasun-azterketak eskatzeko tresna berri bat garatzea eta ezartzea.

02

Arrisku berezia duten langileen lanpostuen ebaluazioa, balorazioa eta egokitzapena, beharrezkoa denean lanpostuen egokitzapenekin.

03

Uvesco ON BIENESTAR plataforma, medikuntza orokorreko medikuak eta *online* espezialistak eguneko 24 orduetan eskuragarri dituen.

04

Zerbitzu medikoen txartela, deskontuak dituen, pertsona guztientzat eta haien zuzeneko senideentzat, guztira 11 espezialitate medikotan.

05

Gure profesionalen kirol-jarduna sustatzea, hainbat kirol-ekitalditan parte har dezaten sustatuz, hala nola empresa lasterketetan.

06

"Ongizaterako lideratzen" masterreko prestakuntza, bere kargura taldeak dituzten langileentzat.

07

Beren zereginak gaueko ordutegian bakarrik egiten dituzten langileei SOS dispositibo bat eta lan horren berezko arriskuei buruzko prestakuntza eta informazioa ematen zaie.

08

Osasun arazoak dituzten pertsonei laguntza medikoa eta prestakuntza emateko programa espezifikoak (Zurekin Hobeto).

09

Prebentziozko masaje zerbitzua probintzia guztietan, gure langileentzako deskontuekin.



Trebetasunen prestakuntza eta garapena

Prestakuntzaren, garapenaren eta barne-sustapenaren ardatza funtsezko baliabideetako bat da, erakundearen misioa betetzeko.

Prestakuntza langileen bizitza osoan zehar presente dago enpresan, pertsonen garapenean laguntzeko bitartekoa baita, eta, beraz, bezeroek hautematen duten erosketa esperientzian ere laguntzen dugu.

Uvesco Taldeak bere langile berrien zein jada dituen langile finkoen ezagutzak hobetzeko eta eguneratzeko dituen prestakuntza planetan egiten duen ahalegina urtez urte egiten du inbertsioan islatzen da. 2025ean, 6.797.960€ inbertitu du guztira, eta pertsonako batez besteko gastua 965€-koa izan da.

6,8M€
INBERTSIOA
PRESTAKUNTZAN

965€
BATEZ BESTEKO INBERTSIOA
PRESTAKUNTZAN, PERTSONAKO

Barne sustapena

2025ean, 232 prestakuntza baino gehiago izan ditugu ataleko arduradunarentzat, arduradunarentzat eta bigarren arduradunarentzat, eta horietako asko erantzukizuneko lanpostu batera igo dira.

Barne sustapenen atalean, garrantzi berezia du "Harrobi Planak". Supermerkatuetan ondorengotza planak mantentzea ahalbidetzen duen proiektua da hau. Plan horretan, sustatu beharreko profesionala identifikatu ondoren, "Harrobi Planean" eta horretarako definitutako prestakuntza programan (aldaketarako prestakuntza) sartzea proposatzen zaio.



Azken urtean, 15 pertsona sartu baitira plan horretan, hobekuntzak zehaztu dira, hautagaien datu-basearen kudeaketa arindu eta automatizatzea bideratuak,

ondorengotza-planen jarraipena optimizatzeko eta kudeaketa eraginkorragoa errazteko.

Beste gizarte politika batzuk

Azken hilabeteetan, langileen ongizate integrala (fisikoa, harremanetakoa, mentala,

espiritua eta ingurunea) elikatzera bideratutako hainbat ekintza garatu dira:

Uvesco Proiektu Solidarioa (ingurunearen ongizatea)

2025ean, proiektu solidarioaren hirugarren edizioa jarri da martxan. Ekimen honen bidez, gure konpromiso solidarioa bultzatzen eta indartzen da. Profesionalek berek aurkezten eta aukeratzen dituzte babestu beharreko proiektuak, eta berek egiten dituzte beren

dohaintzak, Cluvescoren bitartez. 2025ean, 2.430€ bildu dira, gure profesionalen dohaintzen bidez, Espainiako Grinpatien Elkartearentzat. Uvescok bildutako kopurua bikoiztean, elkartek 4.860€ jaso ditu guztira.

Uvesco On Bienestar (ongizate fisikoa)

Profesional guztien eskura dagoen osasun plataforma bat da, eta profesional mediko batekin harremanetan jartzeko aukera ematen digu, *online* txat edo bideo kontsulta baten

bidez (kontsultaren arabera, aukeran). Kanal hori eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, eta erantzunaren itxaronaldia 3 minututik beherakoa da.

Elikagaien Bankuko boluntarioak (inguruneko ongizatea)

2025 honetan, Uvescok, beste behin ere, modu aktiboan lagundu du elikagaien bankuaren bilketan maiatzean, bai eta azaroan egindako Bilketa Handian ere, bai bere instalazio eta 71 profesionalekin, bai aisialdian laguntza lanak

egin dituzten boluntarioekin. Emaizta 587.736€-ko bilketa izan da, bonuen eta 390.544kg elikagai baino gehiagoren bidez, gure supermerkatuetan.

Asier Loidirentzako diru bilketa

Asier Loidi minbiziaren aurka borrokatzen den Uvesco taldeko kidea da. Tratamendua ez du Gizarte Segurantzak ordaintzen, eta, beraz, bere gain hartzen du kostu handia. Egoera horren aurrean, lankideek ekimen hau borondatez eta taldeka abian jartzea erabaki zuten, babesa, hurbiltasuna eta elkartasuna

adierazteko, tratamenduaren karga ekonomikoa arintzeko eta prozesu zail honetan laguntzeko. Proiektuan 13.000€ baino gehiago bildu ziren, Uvescoko profesionalek egindako dohaintzetatik.